



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA: POLITIKA OROKORREKO OSOKO BILKUREA

REMENTERIAK LA AVANZADAREN ERABATEKO ESTALDUREA ETA BIZKAIAN BIZIKLETA ELEKTRIKOAK MAILEGUAN LAGATEKO SISTEMEA IRAGARRI DITU

- **Legealdiko Politika Orokorraren ganeko osoko bigarren bilkuran, Unai Rementeria ahaldun nagusiak azaldu dauenez, proiektu handien artean, Frantziako Tourraren etorrerea, Gernikako Guggenheim Museoa eta datorren urteko irailean Bizkaia Torrea edegitea dagoz.**
- **Aldundia bariku honetatik, urriaren batetik, aurrera itzuliko da aurrez aurreko “erabateko” lanera.**
- **Oposizinoak erreforma fiskala eskatu dau, eta “makillajetzat” jo dau ahaldun nagusiak egindako selfiea.**
- **Aldundiak Bilboko AHTren lurpeko soluzinoan esku hartu daiala eskatu dau Euskal Sozialistak taldeak.**

(Gernikan, 2021eko irailaren 29an). Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusiak proiektu barriak martxan jarriko dirala iragarri dau gaur Gernikako Batzar Etxean egin dan Politika Orokorreko osoko bilkuran; besteak beste, La Avanzada guztiz estaltzea eta, udalen laguntzagaz, lurralderako bizikleta elektrikoak maileguan lagateko sistema bat martxan jarrea. Pandemia hasi zanetik osoko bilkuran musuko barik egin dauen lehenengo berbaldian, Rementeriak proiektu handien artean Guggenheim Gernika Museo barria eta 2023an Frantziako Tourra hona ekartea nabarmendu ditu. Dana dala, azken puntu horregaz erlazionauta datorren urtetik aurrera “Bizkaia horiz tindatu” gura da, hainbat ekimen eginez.

Pandemiak markautako saioan, gaixotasunak ekonomian, hil diran personetan eta foru kudeaketan izan dituan ondorioak errepasau ditu Rementeriak. Azken puntu horretan, egoitzetako adinekoen eta senitartekoaren eretxiagaz geratu da: “8,06” puntu emon jakez egoitzetako foru-zerbitzuei, eta “% 7,18” covid-aren aurreko kudeaketeari. Kanpoko eretxi horreen artean, Fiskaltzak emondakoa be kontuan hartu behar da; izan be, 2020ko bere memorian, giza baliabideetan eta baliabide materialetan foru-erakundearen ahalegina “saiatua eta berezia” izan dala nabarmendu eban. Ganera, “hunkituta” oroitu ditu gaixotasuna jasan daben 136.085 personak eta 2.581 hildakoak.

Etorkizun hurbilari jagokonez, Rementeriak “baikortasun” mezua helduarazo gura izan dau, “gaur, orain urtebete baino hobeto gagoz eta datorren urtean hobeto egotea



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

espero dot”, eta, horren ostean, urte bi honeetako selfie bat atera dau. Konpromisoen “% 35” beteta eta “% 49” martxan, agintaldiaren erdialdean ekimenen “% 16” oraindino hasi barik dagozan arren. Oraindino gauzatu bakoan artean, ahaldun nagusiak behin eta barrero aitatu da gizarte-ekintzaren hobekuntzea, iraupen luzeko zainketen plana martxan jarrita (Etxetik, egoitza txikiak, eskualdeetako zentroen sorkuntza eta beharginen prestakuntzaren aldeko apustua), edo belaunaldi barriko banda zabala hedatzea, lurraldeko “8.191” etxebizitza sakabanatutara eramateko. Gaur egun, “144” etxebizitza dagoz entxufauta, eta Gobernu zentralagaz akordioa lortu da proiektuaren bigarren fasea finantzetako.

Bere kudeaketaren errebasoan, Bizkaiko merkataritzari laguntzeko Eup! Proiektuan be gelditu da, hainbat datu emonda. “344” saltoki dira online salmentarako plataformari atxiki jakozanak “7.800” produktugaz. Halanda be, atariak “heldutasuna lortzeko denpora gehiago” beharko dauela ohartuarazo dau, Gabonetan beste “327” saltokik ekimenagaz bat egingo daben arren.

Energia-trantsizioa bultzatzeko proiektuei jagokenez, Rementeriak iragarri dau Iberdrolagaz garatzen ari dan Sare Elektriko Adimendunen Zentroak “urriaren 5ean” zabalduko dituala ateak, eta “2022ko irailean” gauza bera egingo dauela Energy Intelligence Center izenekoak, hidrogeno-korridoreari lotutako proiektu horretan lekua eskatu daben “puntako 11 enpresagaz”. Datorren beste edegiera batek Nagusi Intelligence Centerrekin dauka zerikusia. Datorren urriaren 13an edegiko da Urduliz Torrean.

AZPIEGITURAK ETA BIZIKLETEA

Aldundiak lurraldeko azpiegiturak hobetzeko beharrean jarraituko dau datozan urteetan. “2023ko udabarrian” Supersur errepidea amaitzea aurreikusi dau, geldialdi bako free-flow bidesari-sistemea daukan Bizkaiko lehenengo errepideagaz. Nahiko lehenago, “2022ko azaroan”, 60 milioi euroko inbertsinoa eskatuko dauen Leioan La Avanzada osorik estaltzeko proiektua prest izatea espero dau. Ganera, Aldundiak ez deutse uko egingo Sollubeko tunelei, baina lehenago Bidebieta-Sollubeko gaina hobetuko da, 35 milioi euroko erreserbeagaz, hurrengo agintaldian. Metroa Galdakaogaz lotzeari jagokenez, Rementeriak ez dau busti gura izan. 350 milioiko inbertsinoa gauzatzea “oso gatxa da, baina ez dot baztertzen. Baliteke errealidade izatea”, esan dau.

Hurrengo urte bietarako beste apustu handietako bat bizikleta da. Rementeriak proiektu “giltzarri” bi aitatu ditu: bizikleta elektrikoak maileguan lagateko sistema bat martxan jarrea, udalakaz alkarlanean. Proiektua guztiz definituta dago, Barik txartelagaz eta garraio publikorako konexinoakaz erabili daiken sistema bategaz. Bigarren proiektua auzoetan, garraio publikoan eta hurbileko gunetan “bizikletak gordetako aparkaleku



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

seguruak” instatea da. Lehenak Getxon, Leioan, Durangon eta Zornotzan egingo dira, “2023a baino lehen”. Puntu horretan eragingarria izango da Frantziako Tourraren helmuga izatea 2023an. Hiru etapa Euskadin barrena. Bizkaia munduari erakusteko. Baina lurraldea “horiz tindatu” gura dau urtebete lehenago, antolakuntzagaz eta udalakaz egindako sustapen-ekimenei bidez.

Rementeria eskualdeetan zentratu da. Onuradunetako bat Urdaibaiko Erreserba izango da, Guggenheim Gernika Museoa instalatu. “Garai barriko lehenengo museoa” “ona” izango da museoarentzat, Gernikarentzat, ekonomiarentzat eta kulturarentzat. Kultur errefortzu horri handitze bi gehituko jakoz: Arte Ederren Museoa eta Euskal Museoa.

EGUNEROKO JARDUNAREN KUDEAKETEA

Aldundiaren erronka nagusiak “egunero persianea altxatzea” izaten jarraituko dau, hau da, eguneroko jardunaren kudeaketa. Bariku honetatik aurrera, Aldundia erabateko aurrez aurreko beharrera itzuliko da, eta zerbitzu horreetan “laster” beste bat sartuko da: bideo-deien bidezko arreta, daborduko bide telematikoen bidez egin daitezkean “450 izapideetako” bat egiteko. “Gertuko” arretari laguntzeko, eskualdeko hiru Gertu bulego barri zabalduko dira Mungian, Markinan eta Igorren.

Bere ber baldian, Rementeriak fiskalitatearen arloan egindako aurrerapenen errepaso egin dau, zerga-helburuen “baremazinoagaz”, Bizkaiko fiskalitatea Garapen Jasangarrirako Helburuakaz lerrokatzeko. Ganera, Itun Ekonomikoa defendidu dau. Beste batzuek “pribilegiotzat” jotzen dabe, baina “diru-bilketea % 11 jaisten danean, inor ez dator gu erreskatetera” esan dau. Araudiari jagokonez, legegintzaldi honetan onartu diran eta, besteak beste, “enpresetan 650 milioi euroko likidezia sartzeko” balio izan daben 15 dekretuak aitatu ditu. Hori dala eta, neurri horreek “salbatzaile” bihurtu dira enpresa txiki eta ertainentzat.

Azken zatian, baso bizidunaren proiektu barrirako, bertako basoak landatzeko inbertituko diran 5 milioietarako edo eukaliptoaren landaketan luzamendua onartzeko foru araudian aldaketa bat egiteko berbak izan ditu. Rementeriak bere Gobernuak energia berdearen alde egindako apustua azpimarratu dau. Foru eraikinek kontsumidutako energiaren % 100 berdea da eta “47 autobus hibrido” eta beste gas-ibilgailu batzuk erosi dira Garbikerren flotarako.

Zorretan geratu diran puntuen artean, hainbat “belarri-tiraldi”. Bat kolektiboa: kartoi eta beiraren birziklatze-maila gitxitu izana, urte amaierarako Getxon, Berritxun eta Igorren3 konpostaje-planta instalatu diran arren. Eta kritika bat bere kudeaketari, aurreko Errenta kanpainan, zergadunei “buruhaustea” eragin izanagaitik. Ezarpena urte bi



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

atzeratuko dan Batuz sistema barriaren aurrerapena. Dana dala, 2022ko urtarriletik Ogasunagazko hartu-emonetarako sistema barria erabilten daberen enpresentzat zergapizgarriak egongo dira, % 15eko murrizketea PFEZaren eta Soziedadeen zergaoinarrian.

BATZAR NAGUSIETAKO TALDEAK

Ordubeteko etenaldiaren ostean, Amaya Fernández Bizkaiko Talde Berezia-PPren bozeroaleak emon deutso hasierea batzarretako taldeen txandari, eta covid-19ak kaltetutakoak gogora ekarriz hasi dau berbaldia, ostean Batzar Nagusietako ganerako taldeek egin daberen moduan. Rementeriak bere kudeaketan egon diran “arazoei iges egiteko” erabili dauen gaixotasuna. Ez dau “ezer” esan Bizkaiko oinarriak indartzearen ganean, eta Fernandezek diagnostikoa osatzeko beste datu batzuk emon ditu: jaiotzasaren jaitsierea, Euskadiko per capita BPGren tasarik txarrena, langabezia-tasarik txarrena, 69.528 lanbako abuztuan, pobrezia-arriskuan dagozan personeren ehunekorik altuena edo industriak lurraldean pisua galdu izana (% 41etik % 16,5era).

Horrez gain, zergak ez jaitea eta bidesariak ez kentzea eta Galdakaoko metroaren proiektua “lurperatzea” kritikau ditu Fernandezek. Bizkaiko Torrearen esleipenari jagokonez, “erridikulutzat” jo dau, eta Ekarpenen Legea onartu izana kritikau dau, “Eusko Jaurlaritza gehiago eta Bizkaia gitxiago” dakarrelako. Europako Funtsak banatzeko proposamen barria be kritikau dau.

Errealidadearen beste argazki bat egin ostean, familia eta lana uztartzeko politika erabakigarrietan arrete jarrea eskatu dau Fernandezek, eta baita zergak jaisteko erreforma fiskala egitea eta ostalaritzari eta merkataritzari laguntza gehiago emotea be. Talde Berezikoko batzarkideak eskua luzatu dau, ekonomiaren susperraldirako “Bizkaiak behar dituan erreforma sakonak” lortzeko, Rementeriak emondako datuakaz talka egiten dabela esanez. Ahaldun nagusiaren berbetan, diru-sarrerak 2019koen ia parekoak dira gaur egun eta esportazioen igoerea “% 31,7koa” da. Foru enpleo planek “3.293” lanpostu sortu ditue, horreetatik “919” mugabakoak.

Beste alde batetik, Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaiako bozeroaleak uste dau datuek agerian ixten dabela arazoak “endemikoak” dirala, eta matxismoak, egiturazko langabeziak, aldi baterako kontratazino gehien dituan lan-prekarietateak, klimalarrialdiak, zaintza-sistemaren arazoak edo pobrezia “estrukturalak” dakardazan arazoak aitatu ditu. Rementeriak zuzentzen dauen Foru Gobernuaren “erantzunik eza” be “aldaezina” da.

Alderdi morearen bozeroaleak kritikau egin dau foru arduradunak iraganeko proiektuei “hautsak kendu” izana, eta Elkarrekin Bizkaiak legegintzaldian egin dituan eta Aldundia



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

babesten daben alderdiek baztertu dituen proposamen batzuk gogoratu arazo deutzaz: zorpetzea handitzea pandemiaren eraginari aurre egiteko, merkataritzarentzako zuzeneko laguntzak, zerga-erreforma bat diru-bilketa handitzeko, edo gaiztasunak dituen personentzako gitxieneko diru-sarrerak. Foru Gobernuaren “berezko ezetza” kritikau dau, izan be, “14 arau proposamenetatik” bakarria babestu dau eta oposizioaren arauz besteko lau proposamen bakarrik onartu ditue. Egoitzen kudeaketea kanpora ateratea eta adinekoak zaintzeko egoitzetan egiten dan apustu publiko-pribaduaren aurrean “herrialdeak amore emotea” izan dira legegintzaldiaren erdialdeko beste “baina” batzuk. Horrez gain, “eufemismotzat” jo dau atzo Gobernu Kontseiluak Ekonomia suspertzeko onartu eban foru araua.

Juan Otermin Euskal Sozialistak taldeko bozeroaleak, bere taldeak zerbitzu publikoen alde egiten dauen apustua aitatu dau, “ate joka daukaguzan erronkei berme osoz aurre egiteko”. Bizikleta elektrikoaren maileguen proiektua nabarmendu dau, eta eztabaida “zintzoa” eskatu dau AHTa Bilbon lurperatzeko prozesuan aurrera egiteko. Rementeriak kudeaketa-agindu baten alde egin dau azpiegitura hori Euskadin eta hiru uriburuetan garatzeko. Eta Oterminek erantzun dauenez, “erakunde eskudunen artean adostu daitekezan kudeaketarako formuletatik harago, azpiegitura horrek dakarren apustu estrategikoan erakunde guztiak inpliketaren alde egiten dogu, baita Aldundia be, eta azpiegitura Bilbon lurpetik sartzea ziurtatuko dauen eztabaida sosegaua eta zintzo bati ekin gura deutzagu”. Eztabaida horretan garraiobidearen erabilera be landu beharko da, Bilboko geltokia amaituta egon ez arren.

Bea Ilardia EH Bildu taldeko bozeroalearen esanetan, Rementeria selfiea “desenfokauta eta makillajez beteta” dago. Bere berbaldian, gaiztasunak dituen personak, baserritarrak edo bardintasun-politikak ahaztu ditu. Pandemiak “agerian itxi dau bizitza erdigunean jarri behar dala, merkaduen eta enpresen mozkinen gainetik”, eta, horregaitik, bere taldea zerbitzu publikoak indartzearen alde agertu da. Deitoratu egin dau enpleo publikoak soilik adinekoentzako egoitza-plazen “% 2,5” kudeatzea, eta desgaitasunen bat daukien personentzako egoitza-plazen “% 86,5en” kudeaketea esku pribaduetan egotea, alde batera itxita, baita be, inkestautako personak “% 44k” ikuskapen gehiago egitea eskatzen dabela. Ilardiak nabarmendu dauenez, Euskadi osorako sistema sozial “bakarra” sortu behar da, “Osakidetzaren antzera”.

Azpiegiturei jagokenez, ibilgailu pribaduaren erabilerari mesede egiten deutzan foru estrategia kritikau dau. Horrek, Gobernu hau ez dagola mobikortasun jasangarriagaz erakusten dau. Supersur eregitearen alde agertu dira “Bolintxu suntsituz”, eta metroa Galdakaora zabaltzea “ez da lehentasuna”. Aldundiak ez dau enpleo duinaren aldeko apustua be bermatzen. Aldundiak soldatak parekatzeko beharrean inpliketako eskatu dau, egoitzetako beharginak hasi eta ganerako azpikontrataz jarraituz. Zerga arloan, Covid Tasea ezartzea eskatu dau, diru-bilketa handitzeko eta lurraldeari fiskalitate justua emateko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Azkenik, **Jesus Lekerikabeaskoa** Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak esan dau Rementeriarren mezua ez dala “autokonplazientea” izan. Akatsak onartu dira, baina ezin da “dana txarto dagola” esan. “Dana ez da gura beste ondo egin”. Bere taldearen entzuteko politikak erreakzionetako gaitasunean gidau gaitu eta, dana Aldundiaren meritua ez bada be, datuek egoera aldatu dala erakusten dabe. Orain 12 hilebete, langabezia “% 12,1ekoa” zan, eta gaur egun “% 11,4koa”; zerga-bilketea “% 18” jaitsi zan, eta aurton barriro be pandemiaren aurreko zifretara itzuli da; edo industria-ekoizpena suspertu egin da, “% 26,6ko” zifra negatiboetatik, “% 12,9ko” positiboetara pasauz.

Jeltzaleak oposizinoko taldeen jarrera kritikau dau, pandemiaren garaian egoitzetako foru kudeaketari egindako kritikengaitik, kudeaketea “txarto” egin zalako, taldeen berbetan, senideek dinoena hori ez dan arren, Rementeriak emondako datuak ikusita, “8,06” puntugaz balorau ebelako egoiliarrei emondako arrete.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA: PLENO DE POLÍTICA GENERAL

REMENTERIA ANUNCIA EL CUBRIMIENTO TOTAL DE LA AVANZADA Y UN SISTEMA DE PRÉSTAMO DE BICICLETAS ELÉCTRICAS PARA BIZKAIA

- En el segundo pleno de Política General de la legislatura, el diputado general, Unai Rementeria, ha explicado que, entre los grandes proyectos, figura la llegada del Tour de Francia, el Museo Guggenheim de Gernika y la apertura de la Torre Bizkaia en septiembre del próximo año.
- La Diputación volverá al trabajo presencial “total” a partir de este viernes, 1 de octubre.
- La oposición pide una reforma fiscal y tacha de “maquillaje” el selfie realizado por el diputado general.
- El grupo Socialistas Vascos pide la implicación de la Diputación en una solución soterrada del TAV en Bilbao.

(Gernika, a 29 de septiembre de 2021). El diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, ha anunciado en el pleno de Política General celebrado hoy en la Casa de Juntas de Gernika, la puesta en marcha de nuevos proyectos, entre los que ha destacado el cubrimiento total de La Avanzada y la puesta en marcha, con la colaboración de los ayuntamientos, de un sistema de préstamo de bicicletas eléctricas compartida para el territorio. En su primera intervención en el pleno, sin mascarilla desde el inicio de la pandemia, Rementeria ha remarcado entre los grandes proyectos que quedan por materializar, el nuevo Museo Guggenheim de Gernika y la llegada del Tour de Francia en 2023, si bien se quiere “teñir Bizkaia de amarillo” con distintas iniciativas desde el próximo año.

En una sesión marcada por la pandemia, Rementeria ha comenzado su intervención realizando un repaso de las consecuencias que ha traído la enfermedad en la economía, en vidas humanas y en la gestión foral. En este último punto se queda con la opinión de los mayores y familiares de residencias que han valorado con “8,06” puntos los servicios forales residenciales y con “7,18%” la gestión frente a la covid. En estas opiniones externas se queda también con la realizada por la Fiscalía del País Vasco que, en su memoria de 2020, destacó que el esfuerzo de la institución foral ha sido “ímprobo y extraordinario” en medios humanos y materiales. Además ha tenido un recuerdo “emocionado” para las “136.085” personas que han sufrido la enfermedad y las “2.581” personas fallecidas.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En cuanto al futuro inmediato, Rementeria ha querido lanzar un mensaje de “optimismo”, porque “hoy estamos mejor que hace un año y espero que el año que viene estemos mejor”, para después sacar un selfi de lo hecho estos dos años de legislatura, con un “35%” de los compromisos cumplidos y un “49%” en marcha, si bien hay un “16%” de iniciativas que aún no se han iniciado en el ecuador de este mandato. En el debe, el diputado general se ha parado en citar la mejora de la obra social con el plan de cuidados de larga duración en marcha (Etxetik, residencias pequeñas, creación de centros comarcales y la apuesta por la formación del personal de cuidados) o la extensión de la banda ancha de nueva generación para llevarla a “8.191” viviendas dispersas del territorio. A día de hoy, hay “144” viviendas enchufadas y se ha alcanzado un acuerdo con el Gobierno central para que financie la segunda fase de este proyecto a través de los Fondos Europeos.

En su repaso a su gestión, se ha parado también en el proyecto Eup! de apoyo al comercio de Bizkaia ofreciendo algunos datos. Son “344” comercios los adheridos a la plataforma de venta online con “7.800” productos. Pero ha advertido de que el portal necesitará “más tiempo para alcanzar su madurez”, pese a que en Navidad se vayan sumar otros “327” comercios.

En cuanto a los proyectos para impulsar la transición energética, Rementeria ha anunciado que el Centro de Redes Eléctricas Inteligentes que se desarrolla con Iberdrola abrirá sus puertas “el 5 de octubre” y que “en septiembre de 2022” hará lo propio el Energy Intelligence Center, con “11 empresas punteras” que ya han pedido ubicarse en este proyecto ligado al corredor del hidrógeno. Otra de las aperturas próximas tienen que ver con el Nagusi Intelligence Center que lo hará el próximo “13 de octubre” en la Torre Urduliz.

INFRAESTRUCTURAS Y BICICLETA

La Diputación seguirá trabajando en los próximos años por mejorar las infraestructuras del territorio. “En primavera de 2023” espera que se culmine la Supersur con la primera vía de Bizkaia con sistema de peaje free-flow sin paradas. Bastante antes, “en noviembre de 2022”, espera tener listo el proyecto para cubrir totalmente La Avanzada en Leioa con un presupuesto de “60 millones de euros”. Además, la Diputación no renunciará a los túneles del alto de Sollube, si bien antes se mejorará el tramo Bidebieta-Alto de Sollube con una reserva de 35 millones a ejecutar en la próxima legislatura. En cuanto a la conexión del metro con Galdakao, Rementeria no se ha querido mojar. Ha señalado que materializar esta inversión de 350 millones “está muy complicado, pero no lo descarto. Puede que sea realidad”, ha dicho.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Otra de las grandes apuestas para los dos próximos años es la bicicleta. Rementeria ha citado dos proyectos “clave”: la puesta en marcha de un sistema de préstamo de bicicletas eléctricas compartida en colaboración con los ayuntamientos. Se encuentra en plena definición el proyecto con un sistema que se pueda utilizar con la tarjeta Barik y con conexiones al transporte público. El segundo proyecto es la instalación de “aparcamientos seguros para la guarda de bicis” en barrios, transporte público y puntos de proximidad. Los primeros se ejecutarán en Getxo, Leioa, Durango y Amorebieta “antes de 2023”. En este punto será un acicate la llegada del Tour de Francia en 2023. Tres etapas por Euskadi que “mostrarán Bizkaia al mundo” pero que pretende “teñir de amarillo” el territorio un año antes a través de iniciativas de promoción con la organización y los ayuntamientos.

Rementeria ha puesto el acento en el apoyo a las comarcas. Una de las beneficiadas será la Reserva de Urdaibai con la instalación de Museo Guggenheim Gernika. “El primer museo del nuevo tiempo” será “bueno” para el museo, Gernika, la economía y la cultura. A este refuerzo cultural se sumarán dos ampliaciones en marcha, las del Museo de Bellas Artes y el Museo Vasco.

GESTIÓN DEL DÍA A DÍA

El reto “más importante” para la Diputación seguirá siendo “levantar la persiana todos los días”, la gestión del día a día. A partir de este viernes la Diputación volverá al trabajo presencial total y en estos servicios “pronto” se incorporará uno nuevo: la atención mediante videollamada para hacer alguno de los “450 trámites” que ya son posibles por medios telemáticos. Para apoyar una atención “cercana”, tres nuevas oficinas comarcales Gertu verán la luz en Mungia, Markina e Igorre.

En su relato, Rementeria ha hecho un repaso de los avances en materia de fiscalidad con la “baremación” de los objetivos tributarios para alinear la fiscalidad de Bizkaia a los ODS. Y ha defendido el Concierto Económico, que otros tachan “de privilegio”, pero que cuando la recaudación cae un “11%, nadie viene a rescatarnos”. En materia normativa durante esta legislatura ha mencionado los 15 decretos aprobados que han servido, entre otras cosas, “para inyectar 650 millones de euros de liquidez en las empresas”, lo que se ha convertido en un “salvavidas” para las pymes.

En su parte final, ha tenido palabras también para el nuevo proyecto de bosque animado, los 5 millones que se invertirán para plantar bosques autóctonos o un cambio en la normativa foral para aprobar una moratoria en la plantación del eucalipto. Rementeria ha destacado la apuesta de su Gobierno por la energía verde. El 100% de la energía consumida por los edificios forales es verde y se han comprado “47 autobuses híbridos” y otros vehículos de gas para la flota de Garbiker.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En su debe varios “tirones de orejas”. Uno colectivo: la reducción de los niveles de reciclaje en cartón y vidrio, aunque a finales de año se instalarán 3 plantas de compostaje en Getxo, Berritxu e Igorre. Y una crítica a su gestión cuando se ha referido a la pasada campaña de la Renta que generó “quebraderos de cabeza” a los contribuyentes. Un anticipo del nuevo sistema Batuz cuya implantación se retrasará dos años, aunque habrá incentivos fiscales para aquellas empresas que utilicen el nuevo sistema de relación con Hacienda desde enero de 2022, una reducción del 15% en la base imponible del IRPF y Sociedades.

GRUPOS JUNTEROS

Tras un receso de una hora, el turno de los grupos junteros ha sido abierto por Amaya Fernández, portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia, quien ha iniciado su intervención recordando a los afectados por la covid-19, como así lo han hecho el resto de los grupos de la Cámara. Una enfermedad que Rementeria ha utilizado, a su juicio, como “escapismo a los problemas” en su gestión. No ha dicho “nada” de reforzar los “cimientos” de Bizkaia, por lo que Fernández ha ofrecido otros datos para completar el diagnóstico, como la bajada de la natalidad, la peor tasa de PIB per cápita de Euskadi, la peor tasa de paro con 69.528 desempleados en agosto, el mayor porcentaje de personas en riesgo de pobreza o la pérdida de peso industrial del territorio (“del 41% al 16,5%”).

Fernández ha criticado también que no se bajen los impuestos ni se quiten los peajes y se “entierre” el proyecto del metro a Galdakao. En cuanto a la adjudicación de la Torre de Bizkaia la ha tachado de “ridículo”, y ha criticado la aprobación de la Ley de Aportaciones que trae “más Gobierno vasco y menos Bizkaia”, al igual que la nueva propuesta para repartir los Fondos Europeos.

Tras hacer otra foto de la realidad, Fernández ha pedido que se ponga el foco en políticas de apoyo decididas a la conciliación familiar, y se realice una reforma fiscal para bajar los impuestos, así como más apoyo a la hostelería y el comercio. La juntera del grupo Mixto ha tendido la mano para conseguir “reformas de calado que Bizkaia necesita” para la recuperación económica que chocan con los datos ofrecidos por Rementeria. Según el diputado general, los ingresos fiscales rozan hoy los de 2019 y el incremento de las exportaciones se sitúa en el “31,7%”. Los planes de empleo forales han creado “3.293” empleos, de ellos “919” indefinidos.

Por su parte, Eneritz de Madariaga, portavoz de Elkarrekin Bizkaia, cree que los datos reales demuestran que los problemas son “endémicos”, y ha citado el borrón que supone el machismo, el desempleo estructural, la precariedad laboral con más



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

contratación temporal, la emergencia climática, los problemas del sistema de cuidados o los niveles de pobreza “estructurales”. Lo que es “invariable” es la “falta de respuesta” del Gobierno foral que dirige Rementería.

La portavoz de la formación morada ha criticado que el responsable foral “desempolva” proyectos del pasado y le ha recordado algunas de las propuestas que Elkarrekin Bizkaia ha hecho durante la legislatura y que han sido rechazadas por las formaciones que le apoyan: aumentar el endeudamiento para afrontar el impacto de la pandemia, ayudas directas al comercio, una reforma fiscal para aumentar la recaudación, o unos ingresos mínimos para las personas en dificultad. Ha criticado “el no por el no” del Gobierno foral, porque de las “14 propuestas de norma” solo una ha sido apoyada y sólo han dado el sí a cuatro proposiciones no de norma de la oposición. La “externalización” de las residencias y la “rendición del país” a la apuesta público-privada en ellas para cuidar a los mayores han sido otros “peros” en el ecuador de la legislatura. Asimismo, ha tildado de “eufemismo” la nueva norma foral de Reactivación Económica que el Consejo de Gobierno aprobó ayer.

Desde el Grupo Socialistas Vascos, su portavoz Juan Otermin, ha manifestado la apuesta socialista por los servicios públicos “para actuar con garantías a los retos que llaman a nuestra puerta”. Ha puesto énfasis en destacar el proyecto de préstamos de bicicletas eléctricas y ha pedido un debate “sincero” para avanzar en el soterramiento del TAV en Bilbao. Rementería ha apostado por una encomienda de gestión para desarrollar esta infraestructura en Euskadi y en las tres capitales. Y Otermin ha respondido que “más allá de fórmulas de gestión que pueden acordarse entre las instituciones competentes, apostamos por implicar a todas las instituciones, también la Diputación, en la apuesta estratégica que supone esta infraestructura, y abordar un debate sosegado y sincero que asegure la entrada soterrada en Bilbao”, así como la posibilidad de usar de este medio de transporte aunque no esté concluida la estación bilbaína.

El selfie de Rementería está “desenfocado y lleno de maquillaje”, ha mantenido Bea Ilardia, portavoz del Grupo EH Bildu. Cree que en la intervención, el máximo responsable del Ejecutivo foral ha olvidado a las personas en dificultad, a los baserritarras o a las políticas de igualdad. La pandemia “ha puesto de manifiesto la necesidad de poner la vida en el centro, por encima de mercados y beneficios empresariales”, y, por ello, su grupo aboga por el reforzamiento de los servicios públicos. Lamenta que el empleo público sólo gestione el “2,5%” de las plazas residenciales para mayores y que la gestión del “86,5%” de las plazas residenciales de personas con discapacidad esté en manos privadas, obviando también que el “44%” de las personas encuestadas abogan por que se hagan más inspecciones. Ilardia ha incidido en la creación de un sistema social “único” para toda Euskadi “al estilo de Osakidetza”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En materia de infraestructuras, la portavoz de EH Bildu ha criticado la estrategia foral para beneficio del uso del vehículo privado, lo que demuestra que este Gobierno no está con la movilidad sostenible. Apuestan por la construcción de la Supersur “destruyendo Bolintxu”, mientras la extensión del metro a Galdakao “no es una prioridad”. Esta Diputación tampoco garantiza la apuesta por el empleo digno. Ha pedido que se implique con la equiparación salarial empezando por el personal de las residencias y continuando con el resto de subcontratas. En materia fiscal ha pedido la implantación de una “Tasa Covid” para aumentar la recaudación e implicarse en dotar al territorio de una fiscalidad justa.

Por último, Jesús Lekerikabeaskoa, portavoz del Grupo Nacionalistas Vascos, ha dicho que el mensaje de Rementería no ha sido “autocomplaciente”. Se han reconocido errores, pero no se puede decir “que todo está mal”. “Todo no se ha hecho tan bien como hubiéramos querido”. La política de escucha de su grupo nos ha guiado en la capacidad de reacción y aunque, no todo es mérito de la Diputación, los datos demuestran que la situación ha cambiado. Hace 12 meses el paro era del “12,1%” y hoy es del “11,4%”; la recaudación fiscal había bajado un “18%” y este año se vuelve a cifras previas a la pandemia; o la recuperación de la producción industrial pasando de cifras negativas del “26,6%” a positivas del “12,9%”.

El jeltzale ha criticado la postura de los grupos de la oposición por criticar la gestión foral en las residencias durante la pandemia, “mal” según los grupos, aunque no es lo que dicen los familiares, subrayando los datos ofrecidos por Rementería que otorgaron una nota de “8,06” puntos en atención a residentes.